

VITAL FUNDAZIOA

2023KO GABONETAKO NEKAZARITZA AZOKA

Gabonetako jaiak direla-eta, ohikoa izaten da hirian, Gabon egunaren aurreko ostegunean, aldi behingo **nekazaritza eta artisautza azoka** egitea. Azokan, saltzaileek, **gehienak ekoizleak**, euren salgaiak erakusten dituzte eta aldi berean kontsumitzaileei zuzenean saltzen dizkiete produktu horietako batzuk.

Dokumentu honek aipatutako jardueraren gauzapena arautzea da helburu, hartara, batera bete daitezzen, bateko, lehiaketa eta erakusketaren ohiko jarduera bera eta, besteko, kontsumorako elikagaien salmentak bermatu behar diren neurri higieniko - sanitarioak, are gehiago, salmenta kalean egiteko bada. Hori guztia, Gasteizko Udalaren Salmenta Ibiltaria arautzen duen Udal Ordenantzan xedatutakoari atxikita (Ordenantza: ALHAOren 23. zenbakian, 2006ko otsailaren 24an argitaratua; ondoren aldatua, 2010eko abuztuaren 06ko ALHAOren 88. zenbakian eta ALHAOren 143. zenbakian 2016ko abenduaren 21an, argitaratu bezala).

Azoka horren erregulazioa Fundación Vital Kutxa Fundazioak hartarako ezarritako hurrengo oinarri hauen arabera egingo da, betiere horrelako jarduerak arautzen dituzten hurrengo arau hauek kontuan izanda: Europar Parlamentuaren 2006/123/CE zuzentaraua, eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 12koa (barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa), martxoaren 1eko 1/2010 Legea, zeinek Txikizkako Merkataritzaren Antolamendurako urtarrilaren 15eko 7/1996 Legea erreformatzen baitu, eta 199/2010 Errege Dekretua, otsailaren 26koa, zeinen bidez arautzen baita salmenta ibiltari edo ez egonekoan jardutea, 802/2021 Foru Agindua, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Software Erregistroan alta emateko deklarazioa arautzen dituena, jatorrizko lurraldearen arabera aplikagarria den kasuetan.

BALDINTZAK

I.- AZOKA EGINGO DEN LEKUA, EGUNA ETA ORDUA

Gabonetako Nekazaritza Azoka aurten **Espainia plazan (elikagaiak) eta Lehendakaria Agirre kalean** egingo da, 2024ko abenduaren 19an, osteguna. Azoka hasi dadin finkatu den ordua goizeko bederatzia dira eta **jarduerak arratsaldeko 16:00etan amaitu beharko du. Saltokiak instalatzeko plaza barrura sartu beharra duten ibilgailuek goizeko zazpietatik aurrera egingo dute, eta, edozein kasutan ere, plazatik 8:30ak baino lehen irten beharko dute, ordu horretan hesiak jarri eta azokarako sarbidea itxiko baita.** Arratsaldeko 16:00ak jo arte, ibilgailuei ez zaie utziko berriro plazara sartzen saltokiak kentzera. Ordu hori baino lehen ibilgailuen beharrezana gerta ez dadin, euren salmenten aurreikuspena egin dezatela aholkatzen diegu parte-hartzaileei eta, hala, merkatuan harik eta amaitzeko ordura arte egoteko beste produktu ekarrita izan dezatela.

II.- SALTOKI MOTAK.

Instalatuko diren saltokiak honako mota hauetakoak izango dira:

1.- Ekoizleen saltokiak, elikadura-produktuak, ardoak eta likoreak elikagai ekologikoak eta eskulangintzakoak saltzeko.

Honako kategoria hauen arabera:

- Lekaleak, barazkiak, frutak eta ortuariak
- Hestebeteak
- Gaztak
- Eztia
- Pateak
- Kontserbak
- Ardoak, likoreak eta sagardoa
- Ogia eta gozogintza
- Beste elikadura-produktu batzuk
- Eskulangintza
- Postu gastronomikoak, antolatzaileek gonbidatuta

Instalazio horiek kategoria bakoitzerako exijitzen den araudi higieniko -sanitarioari atxiki behar zaizkie. Elikagai elaboratuen kasuan, **gonbidatutako postuetan izan ezik, debekatuta dago manei u lanak saltokian bertan egitea, zeinahi ere den mota, hala nola, erroskillak, almendra garrapiñatuak, e.a.**, baita **edari botilaratu gabeen salmenta ere**. Produktu galkorrak **hoztuta eta ondo babestuta** eduki beharko dira, eskabidean konexio-puntu elektrikoaren beharra adierazi beharko da.

2.- Lore, landare eta perretxiko saltokiak

- Debe katuta dago perretxiko pozoitsu edo toxikoen zerrendan agertzen diren espezie guztien salmenta, baita beste edozein espezie, kaltegarria izan daitekeen susmorik badago.
- Espezieek zuzen identifikatuta egon behar dute.
- Higienez eta behar bezala ordenatuta agertuko dira jendaurrean, eta tarte argia utziko da espezie desberdinetako perretxikoen artean.
- **Ekoizpen primarioa** direnez, dagokien **osasan-erregistroa** izan beharko dute.

3.- **Artisau-langileak**, elikadura nahiz nekazaritza eta abeltzaintza tradizionalako sektoreari atxikitako jarduera tradizionalekin eta tokiko artisautza zerikusia badute.

4.- Postu gonbidatuak

Azokak salmenta eta dastaketa postu gastronomikoak izango ditu, antolatzaileek gonbidatuta.

III.- SALTOKIAK ESLEITZEKO PROZEDURA

1.- **Lehentasuna Arabako elikagai-ekoizleek eta elikagaien industriek izango dute, eta izaera hori nola egiaztatu.**

Azoka hori nekazaritza arlokoa denez eta berezko zentzua eta izaera kontuan hartuta, **elikagaien sektoreko ekoizle arabarrek eta Trebiñukoek lehentasuna izango dute**, kategoria bakoitzean, saltokia lortzeko orduan.

Baldintza hori betetzen dutela frogatzeko, eskatzaileek honako hau aurkeztu beharko dute:

- Nekazaritza ustiapenek: Dagokion **Nekazaritzako Ustiatgien Erregistroaren** ziurtagiria. **Ustiapen horren IFK edo IFZk azokan parte hartzeko eskaeran adierazitakoarekin bat etorri** behar du.

- Elikagaien industriek: enpresa eskatzailea azokan saldu nahi duen produktuari dagokion nekazaritzako elikagaien erregistro sanitarioan erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentua. **Egiaztatze horrek 10 urte baino gutxiagoko data izan beharko du**, Ebazpen hau argitaratu denetik.

Bertan adierazten den IFK-k edo IFZk bat etorri beharko du azokako postua eskatu duen pertsona fisiko/juridikoak duenarekin.

Ekoizleen eskabideak saltoki kopurua baino gehiago badira, **saltokiak esleitzerakoan lehentasuna nekazaritza-ustiatzei emango zaie elikagaien industrien aldean**, eta mix komertzialaren irizpidea hartuko da aintzat libre dauden saltokiak gainerako eskatzaileen artean esleitzeko orduan, azoka erakargarriagoa izango dela bermatzeko.

Postu batean saltzen ari den pertsona orok izan beharko du altan emanda Seguritate Sozialean.

2.- Hirian aldizka egiten diren azoketako elikagai-saltzaile ibiltariei saltokia gordetzea, egun horretan euren jarduera Espainia plazara lekualdatzen delako.

Azoka honetan parte hartu nahi eta normalean 1 edo 2 kategorietan jasotzen diren produktuak ostegunetan Santa Barbarako azoketan saldu ohi dituzten saltzaile ibiltariei dagokienez, azoka Espainia plazara lekualdatzen denez, **saltokia gordeta** izango dute dagokien instalazio-baimena lortzeko, eta izaera horia hala geratu behar da jasota aurkeztutako eskabidean.

3.- Beste eskatzaile batzuk

Ekoizle arabarrei eta Santa Barbara azokako ohiko saltzaileei euren saltokiak esleitutakoan, aurreko baldintzak betetzen ez dituzten pertsona fisikoek/juridikoek **aukera izan dezakete** kategoria bakoitzean **libre geratzen diren saltokiak** eskuratzeko, beti ere ebazpen honetan jasotzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

4.- Kalitate-zigilua edo nekazaritza ekologikoa duten produktuen balorazio positiboa.

Euren produktuetan **Eusko Label edo Nekazaritza Ekologikoaren** kalitate-zigiluak dituzten ekoizleek balorazio positiboa jasoko dute. Kanpo-kontrola jasan dutela eta produktuen egokitasuna bermatzen duten erakunde ziurtatzaileen ebaluazio-irizpideak gainditu dituztela ulertuko da.

5.- Eskabide bakar bat onartuko da osasun-erregistroko zenbaki bakoitzeko.

Beste alde batetik, eta azokaren eskaintza askotarikoa izango dela bermatzea xede, **ESKABIDE BAKARRA ONARTUKO DA** azokan dagoen **OSASUN ERREGISTRO OROKORREKO ZENBAKI BAKOITZEKO**, hortaz, produktu edo ekoizle beraren eskaintza errepikatu ez dadin. Osasun-erregistro zenbaki bera duten produktuak saltzeko eskabide bat baino gehiago aurkezten denean, **lehendabizi aurkeztutako dena BAINO EZ** da onartuko (Fundación Vital Fundazioaren sarrera-erregistroan agertzen den dataren arabera), ekoizleak aurkeztu duen kasuan izan ezik, hark lehenasuna izango baitu, 1. puntuari defintzen diren baldintzetan.

6.- Eskabide bakar bat onartuko da IFZ edo IFK bakoitzeko

Eskabide batean baino gehiagotan agertzen diren pertsona eta enpresa guztiak, titular nahiz titularkide gisa, **bazterturik geratuko dira berehala.**

7.- Justifikatu gabe edo alde aurretik abisatu gabe ez agertzeak, dagozkion tasak ez ordaintzeak edo lizentzian adierazten ez den produktu-motaren bat salgai jartzeak **berekin ekar dezake enpresa edo pertsona arau-hausleari Vital Fundazioak antolatutako hurrengo merkatu-deialdietan parte hartzeko eskaera ez onartzea.**

8.- Antolakuntzaren erabakia apela ezina da**IV.- POSTU MOTA BAKOITZERAKO GUTXIENAKO ETA DERRIGORREZKO NEURRI ETA ESKAKIZUN HIGIENIKO SANITARIOAK**

Postu bakoitzak ikusteko moduko lekuan izan beharko du Fundación Vital Fundazioak emango dion instalazio-baimena. Baimen horretan postu zenbakia agertuko da, titularra, titularkidea eta salmentan edo ikusgai dagoen edo dauden produktua edo produktuak. Era berean, derrigorrezkoa izango da ikusteko moduko lekuan izatea dagokion erregistro sanitarioa, hala eskatzen den produktuen kasuan.

Saltzaileek elikagaien manipulaziorako dagokien prestakuntza higieniko-sanitarioa izan behar dute.

Elikagaien salmentari dagozkion **baldintza tekniko-sanitarioen** arloan, erakusketari **Kalez Kaleko Salmentaren Vitoria-Gasteizko Udalaren Ordenantza Arautzailean** xedatutakoa beteko dute (2006ko otsailaren 24ko ALHAO 23. zenbakian argitaratua eta gerora aldatua 2010eko abuztuaren 06ko ALHAO 88. zenbakian eta ALHAOren 143. zenbakian 2016ko abenduaren 21an

argitaratutakoaren arabera) edo **aipatutako Azokan salgai dauden produktuen merkaturatzeari eta/edo eraldatzeari eragiten dion indarrean dagoen araudia. Azoka honi eragiten dioten arau horiek edo besteren bat haustearen azken arduraduna saltzaileena izango da, eta zehapen administratiboen mende izan daitezke.**

Hainbat administraziok merkatuetan saltzeari buruz egindako protokoloetan emandako gomendioei jarraituz, zehazki, Espainiako Gobernuko Osasun eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioen "Sedentarioa ez den salmenta-merkatuen jarduerara bideratutako jardunbide egokien protokoloa eta gida" delakoari jarraituz, saltzaileek honako jarraibide hauek bete beharko dituzte:

- **Ordainketak eskudirutan egitea onartzen badira ere, beste baliabide batzuen bidezko ordainketa lehenetsiko da, txartel edo mugikor bidez esaterako.**
- **Eskularru higienikoak erabiltzea, produktuarekin kontaktu zuzena ez izateko.**
- **Produktua eroslearengandik urrun edukitzea, segurtasun-tartea**
- **Agintariek merkatua egiten den uneko osasun-egoeraren arabera helaraziko dituzten higiene- eta osasun-gomendioak hartuko dira kontuan**

V.- IZENA EMATEKO LEKUA, EPEA ETA ESKAKIZUNAK

Postuak jartzeko baimen-eskaerak **2024ko azaroaren 4tik 12era bitartean aurkeztuko dira, gure webgunearen bidez baino ez**

- Telefono bidezko informazioa: 945-776858
- WEB orria: www.fundacionvital.eus

Oro har, ez da salmenta-eskaerarik onartuko deialdi honetan ezarritako data ofizialak baino lehen edo ostean, **ezta oinarri hauetan eskatzen den dokumentazio guztia eransten ez duen eskaerarik ere**. Edozein kasutan, ezarri den epealdi ofizialean, erabilgarri dauden postuen kopurua baino eskaera kopuru baxuagoa jasoko balitz, eskaera-epealdia amaitu ostean jasotako eskaerak onar litezke. Kasu horretan, postu kopuru osoa bete arte hartuko dira aintzat eskaerak, eta erabiliko den irizpidea

eskaeraren sarbide-ordena izango da, erakundearen erregistroan duen sarbide dataren arabera eta erakundeak ezarritako esleipen irizpideen arabera.

- **Behar bezala beteta etorriko diren dagokion eskaera-inprimakiarekin eta osasun-txostenarekin batera, derrigorrez aurkeztuko da jarraian adieraziko den honako dokumentazio hau:**
- Titularraren eta titularkidearen NAN fotokopia.
- **Hala behar duten elikagaien kasuan, merkaturatzen diren produktuen Erregistro Sanitario Zenbakiaren fotokopia. Aurkezten den dokumentazioaren datak Ebazpen hau argitaratu den datatik 10 urte atzeragokoak izan daitezke, gehienez jota.**
- Alergenoen identifikazioa edo produktuaren alergenok jasotzen dituzten produktuen etiketak.
- Beharrezkoa den kasuan, Nekazaritza Ustiategiaren Erregistro Zenbakiaren fotokopia.
- Saltzaileek Elikagaien Higiene arloan duten Prestakuntza Ziurtagiriaren fotokopia.
- Azoka egunean egiten den jardueran eragin litezkeen balizko kalteak eta galerak estaltzen dituen Erantzukizun Zibileko aseguru-poliza eta ordainketaren agiria.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta edo AEATen Jarduera Ekonomikoen Erroldan egoera Ziurtagiria 2024ko dataz edo ordaintzeaz salbuetsita daudela dioen dokumentua: zentzu honetan, Azokan parte hartzen duten enpresen eta/edo pertsonen erantzukizuna izango da dagokion epigrafean alta emanda izatea.
- Dagokion autonomia-erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroa.

VI.- POSTUEN EZAUGARRIAK ETA SALTZAILE BAKOITZAREN POSTU ZENBAKIA

Salmenta postuak identifikatuta izango dira azoka instalatzen hasteko lehenengo orduan. Saltzaile bakoitza esleitu zaion postuan instalatu beharko da, postu

zenbakiari begiratuta. Postuan, ondo ikusteko moduko lekuan, eman den **instalazio-baimena kokatuko da ikusgai**. Baimen horretan jasotzen dira saltzailearen identifikazio-datuak, baita saltzen diren produktuak ere. Era berean, derrigorrez erakutsi behar da, ondo ikusteko moduko lekuan, dagokion erregistro sanitarioa, hala eskatzen duten produktuen kasuan, eta alergenok identifikatzeko nahitaezko informazioa.

Postuak estalita egongo dira eta 2,44 x 0,88 metrokoak izango dira gutxi gorabehera. Saltzaile bakoitzak salmenta postu 2 eska ditzake gehienez (postu bikoitz 1) aukera hori dagoen kategorietan, beti ere ebazpen honen 1. Eranskinean berariaz adierazi bada. Produktu galkorrak hozteko konexio-puntu elektrikoa behar bada, eskabidean adierazi beharko da.

Antolatzaileei altzaridun saltokia eskatuz gero, argi eta garbi adieraziko da nahi hori Ebazpen honen 1 Eranskinean. **Postu horien esleipena dagoen stockaren mendean izango da**, eta azken finean, postua eskatu duena da produktuak behar bezala erakustearen erantzulea eta berak jarri behar ditu beharrezko baliabideak. Antolakuntzak, lekuak eta postuak birkokatzeko eskubidea du, azokaren beharrezko eta exijitutako segurtasun baldintzek hala eskatuz gero.

Standak ezin erabil litezke azokarako ez den beste helburu baterako, eta ezin zaizkie hirugarrenei laga.

Erabat debekatuta dago standetan publizitaterik jartzea.

Fundación Vital Fundazioaren baimen barik ezin liteke mezu erreibindikatzailerik kokatu postuetan.

Standetan dagoen Vital Kutxa eta Kutxabank publizitatea bere osotasunean errespetatu behar da.

Pisatu edo neurtu behar diren produktuak saltzen dituzten postuek baskula izan beharko dute edo arauzko beste elementu neurtzaile batzuk, behar bezala homologatuak, eta erosleek ere ikusteko moduan kokatuko dira.

Ofizios egiaztatuko da balantza elektronikoak Eusko Jaurlaritzaren Industria sailak edo autonomia erkidego bakoitzean eskumena duen autoritateak kalibratuta izatea. Egiaztatze hori balantzari berari itsatsitako pegatinaren bidez egingo da. **Gainera, salmenta eragiketa bakoitzaren erosketa-tiketa emateko moduan izan behar da.**

Tiket horretan zenbakia, data, kontzeptua eta ordaindutako zenbatekoa eta enpresaren identifikazioa eta IFZ zehaztuko dira.

Egindako salmenta bakoitzarekin erosle bakoitzari Fundación Vital Fundazioak egin ditzakeen zozketetako txartel bat emateko eskatu ahal izango die antolakuntzak merkatuko postuei.

Postu guztietan egon beharko dira erreklamazio orriak, eskatzen dituenaren esku.

Merkatuak dirauen bitartean, ikuskapenik balego prest izateko, saltzaile bakoitzak salmenta-postuan izan beharko du aurkeztutako **dokumentazioaren kopia** bat.

Jarduera amaitzean, saltzaile edo erakusketari bakoitzak postua dagoen lekua nahiz inguruak garbi utzi beharko ditu, baita erabilitako postua bera ere, eta zoruari, postuei edo, oro har, ondasun publikoei eragin diezazkieketen kalteak birjartzearen erantzule dira, hori guztia hirugarrenei eragindako kalteengatik edo lesioengatik izan lezakeen erantzukizunaren kalterik gabe. Oinarri hauen edo beste batzuk ez betetzeak azokaren etorkizuneko deialdietatik kanpo geratzea ekar lezake.

Antolakuntzak edukiontziak jarriko ditu eskura, salmenten ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko (plastikoak, kartoia, ontziak eta hondakin organikoak).

VII.- ESLEIPENDUN PERTSONEN ZERRENDA

Eskuragarri gera litezkeen saltokien adjudikazioa (aldizkako azoketako saltzaile ibiltariak eta ekoizleak dagozkien saltokiak okupatu ondoren) antolatzaileek ezarritako irizpideen arabera egingo da, beti ere ekoizle arabarrek izango dutela lehentasuna.

Pertsona esleipendunen zerrendak Fundación Vital Fundazioaren egoitzan kontsulta daitezke (Aiztogile kalea 24, Kordoi Etxea) edo 945-776858 informazio-telefonoaren bitartez eta webgunearen bidez: www.fundacionvital.eus **azaroaren 25ko 12:00etatik** aurrera.

Erakundeak hartutako erabakiak apelaezinak izango dira.

VIII.- INSTALAZIO BAIMENA ETA ORDAINKETA MODUAK

Erakusketarako edo euren produktuak Nekazaritza Azokan saltzeko onartutako

pertsonak **15,00 €-ko tasa ordaindu beharko dute, luzetara gehienez 3 metro izango dituen saltoki bakoitzeko.**

Azaroaren 27tik aurrera, eta abenduaren **11ra** arte, aipatutako tasaren ordainketa era hauetara egiteko aukera izango da:

- **Fundación Vital Fundazioaren bulegoetan, Aiztogile kalea 24 (Kordoi Etxea) txartelaz ordainduta.**
- **Fundación Vital Fundazioaren ES83 2095 0611 09 1090527374 kontuan sartuta, Kutxabanken edozein bulegotan edo on line bankaren bidez (www.kutxabank.es) titularraren izena eta antolakuntzak esleitutako erreferentzia zenbakia zehaztuta.**

Fundación Vital Fundazioak ematen duen instalazio baimena, tasa ordaindu izanaren ziurtasuna dagoenean eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu denean emango da. Dokumentazioa abenduaren 13etik aurrera Fundación Vital Fundazioaren bulegoetan aurkeztuko da (Aiztogile kalea 24, Kordoi Etxea) edo azoka egunean bertan, postuak instalatu baino lehen.

Justifikaziorik gabe agertu ez izanak edo dagozkion tasak ez ordaintzeak edo saltokian salgai dagoen produktu mota bat dagokion lizentzian adierazten den bera izan beharra ez betetzeak ondorioztat izan dezake, **enpresa edo pertsona arau-hausleak hurrengo Gabonetako Nekazaritza Azokaren deialdian** parte hartzeko egiten duen eskabidea ez onartzea.

Plazara sartzeko, Instalazio-baimen hori erakutsi beharko da eta, Azoka egiten ari dela ere saltokian bertan erakutsi, ikusteko moduko leku batean.

Udal tasa ordaindu izanaren ordainagiriarekin batera saltzaile bakoitzari beste baimen bat emango zaio, bere ibilgailua Azokak iraun orduetan TAO aparkalekuan aparkatu ahal izateko baimen-txartela. **Txartel horrek ezein kasutan ere ez du baimenik ematen, eginkizun harekin lotuta dauden lanez kanpo, karga eta deskarga guneetan aparkatzeko (Aparkatuta egoteko gehienezko denbora, 30 minutu, dagokion Udal Ordenantzaren arabera).**

Udalaren baimenik gabe saltzea, baita baimenean agertzen ez diren produktuak saltzea ere, postuaren kautelazko kentzea ekar lezake, eskudun agintaritzaren aldetik eta, kasuaren arabera, salgaien kautelazko esku-hartzea edo konfiskatzea,

hori guztiori, dagokion zehapen espedientea irekitzearen kalterik gabe, beti ere agintaritzak egoki irizten badio.

IX.- DATUEN BABESA

Arduraduna: FUNDACIÓN VITAL FUNDAZIOA

Tratamenduaren helburua: zurekin harremana eta komunikazioa izatea eta egindako online eskaerak kudeatzea

Eskubideak: hala dagokionean, datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, aurkaratu, datuen eramangarritasuna eskatu, tratamendua mugatu daiteke, eta erabaki automatizatu hutsen xede ez izatea eska daiteke, pribatutasun-politikan ikus daitekeen informazio gehigarrian eta osoan zehazten den bezala

Pribatutasun politika irakurri eta onartzen dut. Onarpena beharrezkoa da eskatutako zerbitzua jaso dezazun.

Baimena ematen dut jarduera eta zerbitzuen merkataritza-komunikazio elektronikoak bidal diezazkidazuen. Bidaliko dizkizugun komunikazioek, komunikazioan bertan, komunikazio horiek jasotzeari uzteko aukera barne hartuko dute. Baimena edozein unetan bota dezakezu atzera lop@fundacionvital.eus helbidera mezu elektronikoa bidaliz.

Deialdi honetan parte hartzeak baldintza orokor hauek onartu direla esan nahi du.
